

124. FITXA GIPUZKOA – Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei udal hirigintza tresnetan genero-ikuspegia txertatzearen ondoriozko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei udal hirigintza tresnetan genero-ikuspegia txertatzearen ondoriozko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko 2025eko deialdia](#)

Eremuak: Genero ikuspegia

Zenbatekoa: 100.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/05/30

Laburpena

Hirigintza plan eta proiektuetan zein hirigintza eta/edo eraikuntza ordenantzetan **genero-ikuspegia txertatzearen** ondoriozko gastuak finantzatzeko diru-laguntzak dira.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Genero-ikuspegia hirigintza-dokumentu hauetan txertatzera bideratutako azterlanak idaztearen ondoriozko gastuak lagunduko dira diruz:

- Hirigintza eta/edo eraikuntza ordenantzak.
- Plangintza orokorraren aldaketak, eta garapen-plangintzaren dokumentuak eta horien aldaketak.
- Hirigintza proiektuak eta hirigintza-obren proiektuak.

Zehazki, deialdian aipatutako dokumentuak lantzeko kontratatutako aholkularitza eta laguntza teknikoko lanak sartzen dira. Dokumentu horiek txertatuta izan beharko dute genero-ikuspegia, memorian sexuaren arabera bereizitako datuak gehituz eta proposatzen den antolamenduaren azalpen-zatian genero-eraginaren azterketari helduz.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak **2025. urtean hasiko dira**, eta **2025eko abenduaren 1a baino lehen** bukatuta eta justifikatuta egon beharko dute.